

## 2.DEMOGRAFIA

### 2.1.-Bilakaera historikoa.

Gaur egun 7000 miloi biztanle baino gehiago bizi gara munduan. Holako biztanle zenbaki handia orain dela gutxi lortu izan da. Hau da, denbora laburrean hazkunde demografiko arin bat egon da, taula honetan ikusten dena:

<u>Urtea</u>	<u>Biztanleak (miloietan)</u>
1820	1000
1930	2000
1962	3000
1974	4000
1987	5000
1999	6000
2011	7000 (Begiratu datuak erantsitako excelen)

Historian zehar biztanleriaren hazkundera, oso motela izan da. Milaka urteetan, 1650. urtera arte %0'5/mende bakoitzeko izan zen hazkunde tasa. Gainera, mende batzuetan, hazkundera izan beharrean, murrizketa bat eman zen. Azken hamarkadatan, aldiz, munduko biztanleriaren urteroko hazkunde tasa, %1'7 izan da.

### 2.2.- Datu demografikoen iturriak.

Nolabaiteko egitura politiko edo erlijioso sendoa egon den gizarteetan, beti zenbatu izan dute biztanleria edo zuten partaideak. Gure inguruan eliza katolikoa, bataioak, ezkontzak eta hiletak zenbatzerakoan, datu demografiko historikoen iturri nagusia bihurtu zen.

Gaur egun, herrialde guztietan biltzen dira bertako hiritarren datuak. Horretarako **zentsuak** egiten dira, hamar urtean behin. Egiten den datu bilketarik handiena da, datu demografiko nagusiak jasotzeko.

Udal erroldak eta, erregistro zibilean inskribatzerakoan, jaiotza, ezkontza, heriotza, dibortzioa eta biltzen diren antzeko estatistikak, erabiltzen dira datu demografikoak eguneratuak izateko.

Biltzen diren datuak honako hauek dira: geografikoak, familiarenak, pertsonalak, kulturalak, lanarenak, emakumeen ugalkortasunari buruzkoak, e.a.

### 2.3.-Oinarrizko prozesu demografikoak.

Biztanleriaren dinamika ulertzeko hiru dira aztertu beharreko prozesu demografiko nagusiak: ugalkortasuna, hilkortasuna eta mugimendu migratzaileak.

#### Ugalkortasuna

Emakumeek izan ahal duten eta izaten duten seme-alaben kopurua neurtzen da hemen. Bi osagai ditu ugalkortasunak:

1) Biologikoa.: Horretarako kontutan izaten dira adin emankorrean dauden emakumeak (15-49). Bigarren osagai biologikoa antzutasunaren kasuak dira (bikoteen %10).

2)Soziala:Harreman sexual emankorrek baldintzatzen duten egoerak: Ezkontza adina, ezkongabeen kopurua, banaketak, antisorgailuen erabilera, zigortu gabeko abortua.

**Ugalkortasuna neurtzeko zenbait adierazleak Jaiotze-tasa**

**gordina:**Urte eta lurralde jakin batean bizirik jaiotako umeen kopuruak biztanleri osoarekiko suposatzen duen proportzioa

$$J.T.G. = \frac{\text{Bizirik jaiotako haurrak}}{\text{Biztanleri osoa}} \times 1000$$

**Ugalkortasun orokorraren tasa:**Urte eta lurralde jakin batean bizirik jaiotako umeen kopuruak adin emankorrean dauden emakumeekiko suposatzen duen proportzioa.

$$U.O.T. = \frac{\text{Bizirik jaiotako haurrak}}{\text{(15-49) urte bitarteko emakumeak}} \times 1000$$

**Adinaren arabeko ugalkortasun tasak:**Urte eta lurralde jakin batean, x adineko emakumeengandik jaiotako umeen kopuruak , x adineko emakumeekiko suposatzen duen proportzioa.

$$A.A.U.T.= \frac{\text{Jaiotako haurrak x adineko emakumeengandik}}{\text{x adineko emakumeak}} \times 1000$$

**Ugalkortasunaren indize sintetikoa:**Emakume batek ugalkor den bitartean guztira izango dituen haurren kopurua adierazten du, baldin eta denbora horretan A.A.U.T. izaten baditu.

$$U.I.S. = \Sigma (A.A.U. T. )$$

**Hilkortasuna**

Leherketa demografikoaren oinarrian dagoen gertaera, hilkortasunean emandako aldaketak daude, bereziki haurren hilkortasunari dagokiona.

Osagarri daude:

1)Biologikoa: Bizitzaren iraupena mugatua da.

2)Sozialak: Maila soziala, lanbidea, ingurugiroa, istripu motak, bizimodua.

**Hilkortasuna neurtzeko zenbait adierazleak**

**Hilkortasun-tasa gordina:**Urte eta lurralde jakin batean hildakoen kopuruak biztanleri osoarekiko suposatzen duen proportzioa.

$$H.T.G. = \frac{\text{Hildakoak}}{\text{Biztanleri osoa}} \times 1000$$

**Adina eta sexuaren araberako hilkortasun-tasak:** Urte eta lurralde jakin batean,  $x$  adineko hildako gizonen edo emakumeen kopuruak,  $x$  adineko gizon edo emakumeekiko suposatzen duen proportzioa.

$$\text{H.T.A.S.A.} = \frac{x \text{ adineko hildako gizon edo emakumeak}}{x \text{ adineko gizon edo emakumeak}} \times 1000$$

**Hilkortasun taulak:** Denboraldi jakin bateko adin bakoitzeko hilkortasunaren egoera adierazten dute.

**Bizi-itxaropena jaiotzean:** Jaiotako bakoitza biziko litzatekeen batez-besteko urte-kopurua, denboraldiko hilkortasun baldintzek iraungo balute.

**Haurren hilkortasuna:** Urte eta lurralde jakin batean lehen urtea bete baino lehen hildako haurren kopuruak urte horretan jaiotako hurrekiko suposatzen duen proportzioa.

$$\text{H.H.} = \frac{\text{Hildako haurrak 1. urtea bete baino lehen}}{\text{Jaiotako umeak}} \times 1000$$

### **Mugimendu migratzaileak**

Edozein bizilekuaren aldaketa iraunkor bat izaten da **migrazio** bat.

**Emigrazioa:** Beren jatorria azterketarako lurralde izanik destinoa lurralde horretatik kanpora duten migrazioak dira.

**Inmigrazioa:** Beren jatorria azterketarako lurraldetik kanpokoa izanik destinoa azterketarako lurraldea duten migrazioak dira.

**Migrazio-saldoa:** Eremu jakin batean inmigrazioen eta emigrazioen artean ematen den diferentzia da. Negatiboa bada joandakoak etorritakoak baino gehiago direlako izaten da.

**Migrazio-saldoaren tasa:** Biztanleri osoarekiko suposatzen duen proportzioa

### **Prozesuen arteko harremanak:**

**Biztanleriaren berezko hazkundera:** Bizirik jaiotakoen eta heriotzen arteko kendura (Negatiboa bada murriztapen bat izango da) **Biztanleriaren**

**berezko hazkunderaren tasa:** Jaiotzen tasa gordina eta hilkortasun tasa gordinaren artean ematen den diferentzia.

**Biztanleriaren hazkunde osoa:** Berezko hazkundera gehi migrazio-saldoa.

## **2.4.-Egitura demografikoa.**

**Egitura demografikoak** aldagai demografikoen artean ematen den harremanen sarea aztertzen du. Egoera demografikoaren azterketa estatikoa da, prozesuek dinamikotasuna aztertzen dutelarik.

**Biztanleri piramideak:** Sexu bakoitzetik eta une jakin batean adin-talde bakoitzean aurkitzen diren pertsonen kopurua errepresentatzen du.

**Sexuen arteko ratioa:**Gizon eta emakumeen artean dagoen proportzioa.

**Zahartzapen indizea:**65 urte baino gehiago dutenen proportzioa. %10 baino gehiago denean biztanleria zaharra dela esaten da.

**Gaztetasun indizea:**15 urte baino gutxiago dutenen proportzioa. %35 baino handiagoa denean biztanleria gaztea dela esaten da.

**Dependentzia tasa:**Adin inaktiboan (<16, >65) daudenen eta adin aktiboan daudenen arteko proportzioa. >0'5 bada dependentzia nabarmena dagoela adierazten du.

## **2.5.- Teoria demografikoak.**

Lehenengo azterketa sakona arazo demografikoen inguruan Robert Malthus-ek egin zuen , 1798an bere “Essay on the Principle of Population...” idatzi zuenean .Hazkunde demografikoa eta elikagaien hazkundearen arteko loturak azaldu zuen. Biztanleria era esponentzian hazten dira; elikagaiak aldiz era linealean. Horrek pobretasuna eta arazoak ekarriko zituen eta horregatik beharrezkoa zen nolabaiteko balazta edo kontrola jartzea.

Neomalthusiarrak dira honen jarraitzaileak eta oihartzun handia lortu zuten 60. urtetako hamarkadan.

### **Igaroaldi demografikoaren teoria**

Teoria historiakoa da. Hasiera batean Warren Thompson-ek 1929an egindako deskribapen batetik hasi zen: Hiru gune berezitu zituen jokabide demografikoaren arabera:


1)Ipar eta mendebal Europa eta AEB. Berezko hazkunde handi batetik hazkunde txikira pasatu ziren.

2)Hego eta erdialdeko Europa: Jaiotza eta hilkortasun tasak jaisten ari ziren baina hazkundera oso handia zen.

3)Munduko beste herrialdeak: Jaiotza eta hilkortasun tasak handia dira baina berezko hazkundera motela da.

Deskribapen honetatik abiatuta 1945ean Frank Notenstein-ek “Igaroaldi edo trantsizio demografikoaren teoria” landu zuen.

Bi jokabide demografiko nagusi ematen dira: Tradizionala eta modernoa. Tradizionalan hilkortasuna oso handia da ( $\approx$  %40), horren aurrean ugalkortasuna ere handia delarik; hazkundera nahiko motela izanda. Modernoan hilkortasuna txikia izaten da, baita ugalkortasuna ere, hazkundera oso txikia izanik. Bi jokabideen arteko tartean igaroaldia ematen da eta hor dago leherketa demografikoa.



**Ziklo ekonomikoaren eta ziklo demografikoaren arteko loturak.** Easterlin-ek defendatzen du teoria hau. Jendeak hazkunde ekonomikoa eta bizi baldintzak hobetzeko aukerak ikusten duenean animatu egiten da seme-alabak izatera. Jaiotzak ugaltzen dira baina heldutasunera heltzen direnean arazoak ikusten dute arlo guztietan: ikasteko, lana aurkitzeko, etxebizitza lortzeko, e.a. Belaunaldi hori desanimatu egiten da eta murriztuko du bere ugalkortasuna. Ziklo ekonomikoak eta ziklo demografikoak fase ezberdinetan ematen dira.

**Bigarren igaroaldi demografikoa.**

Lesthaeghe eta Van de Kaa. Familia mota berriak ematen dira. (Dibortzioak, bigarren ezkontzak, elkarbizitzan ezkondu barik, e.a.). Horrek ondorio demografikoak ditu.